

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	KALITATEAREN KUDEAKETA ETA LANEKO ETA INGURUMENEN ARRISKUEN PREBENTZIOA (Zeharkakoa)	Iraupena	50
		Espezifikoa	
Kodea	UF0721		
Lanbide-arloa	KIMIKA		
Lanbide-eremua	Polimeroen transformazioa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Kautxua transformatzeko eragiketak	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Kautxuaren eta latexaren nahasketak transformatzeko eragiketak	Iraupena	150
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Kautxuaren eta latexaren nahasketen transformazioa eta bulkanizazioa	Iraupena	70
	Kautxuaren eta latexaren transformazio- eta bulkanizazio-produktuak		30

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0327_2 gaitasun-ataleko LB1, LB2, LB3, LB4, LB5 eta LB6 lanbide-burutzapenekin, arrisku kimikoaren edo ingurumen-kutsaduraren aurrean hartu beharreko arau espezifikoei dagokienez.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Polimeroen transformazioarekin lotutako segurtasun-neurriak eta laneko eta ingurumeneko arriskuen prebentzioko neurriak identifikatzea.

- EI1.1 Lan-eremuan langileek errespetatu behar dituzten eragiketa segururako arauak deskribatzea.
- EI1.2 Lan-prozeduren agintzen diren segurtasuneko eta higieneko arauak betetzea.
- EI1.3 Eragiketak egiteko norbera babesteko behar diren jantziak eta ekipoak erabiltzea, eta prozesuaren eta/edo produktuaren arrisku kimikoekin erlazionatzea.
- EI1.4 Eragiketa guztietan ingurumena babesteko aplikatu behar diren arauak eta prozedurak identifikatzea.
- EI1.5 Ingurumen-arriskuak identifikatzea, bai eta eragin daitezkeen ingurumen-inpaktuen parametroak ere.
- EI1.6 Segurtasun-orrien eta norbera babesteko baliabideen helburua deskribatzea.
- EI1.7 Jarduera-protokoloak aplikatzea izan litezkeen larrialdietan, kasurako:
 - Zeregin espezifikoez arduratu behar duten pertsonak identifikatzea.
 - Detektatutako disfuntzio eta gertaera arriskutsuen berri ematea.
 - Larrialdietan eraikinak ebakuatzea, ezarritako prozedurei jarraikiz.

A2: Behar bezala fabrikatzeko arauak aplikatzea polimeroen eta matrize polimerikoko material konposatuen transformazio-prozesuetan.

- EI2.1 Kalitateko eta erabateko kalitateko kontzeptuak definitzea, eta lanpostuko jarduerekin erlazionatzea.
- EI2.2 Fabrikazio zuzenaren arauak identifikatzea, eta transformazio-prozesuetan aplikatzea.
- EI2.3 Fabrikazio-dokumentuen betetzea lotutako produktuen trazabilitatearekin erlazionatzea.
- EI2.4 Loteari, betetzeari, erregistroari eta eguneratzei lotutako dokumentuak identifikatzea.
- EI2.5 Anomaliak eta gorabeherak komunikatzeko mekanismoak deskribatzea.
- EI2.6 Ordenak eta garbitasunak ekoizpen-prozesuaren oinarriko egintza gisa duten garrantzia justifikatzea.

A3: Instalazio eta ekipoetako manipulazio-jardueretarako prebentzio- eta segurtasun-neurriak (sektoreko enpresetako segurtasun-planetan jasotzen direnak) aztertzea.

- EI3.1 Instalazio eta ekipoetako manipulazioak eragin ditzakeen arriskuekin lotutako prebentzio- eta segurtasun-arauak zehaztea.
- EI3.2 Arrisku-faktoreak eta arriskuak identifikatu eta ebaluatzea.
- EI3.3 Izan litezkeen istripuetarako lehen sorospenen eskakizunak aztertzea.
- EI3.4 Langileek eta enpresak prebentzio- eta segurtasun-arloan dituzten eskubide eta betebeharrak definitzea.

Edukiak

1. Material polimerikoen transformazioko kalitate-kudeaketako oinarriak:

- Kalitate-sistemak. ISO. EFQM. TS16949.
- Estatistika aplikatuko kontzeptuak.
 - Banaketa normala.
 - Kontrol-grafikoak.
 - Ahalmen-azterketak.
 - Laginketa-teknikak.

- Kalitaterik ezaren arriskuak. Kalitaterik ezaren kostuak.
- Kalitate-ikuskapenak.

2. Material polimerikoen transformazioko segurtasuna eta laneko arriskuen prebentzioa.

- Arrisku profesionalak.
 - Kontzeptuak eta definizioak.
- Lan Arriskuak Prebenitzeko Legea. Kontzeptu legalak. Eskubideak eta betebeharrak. Zigorrak.
- Larrialdi-plana. Elaborazioa. Eraginkortasuna.
- Lan-inguruneoko segurtasun-kondizioak.
 - Arrisku fisikoak eta kimikoak.
 - Arrisku elektrikoak.
 - Arrisku ergonomikoak eta jarrera-arriskuak.
- Makinetako nahitaezko babesak. Makinei buruzko errege-dekretua.
- Norbera babesteko ekipoak. NBE-motak. Erabilera.
- Seinaleztapenak. Optikoa. Akustikoa.
- Ordena eta garbiketa lan-eremuan. 5S-en metodologia.
- Prebentzio-ikuskapenak. Anomaliak detektatzea.

3. Larrialdietan eta ebakuazioetan egin beharrekoak.

- Istripu-motak.
- Zaurituaren lehen mailako ebaluazioa.
- Lehen laguntza.
- Sorospenak.
- Larrialdi-egoerak.
- Larrialdi- eta ebakuazio-planak.
- Larrialdietako jarduerarako informazio osagarria.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Kautxua transformatzeko eragiketak.